Ayuntamiento de **URKABUSTAIZ** (Álava) — **URKABUSTAIZKO** Udala (Araba)

C.I.F.: P - 0106200 - I • c/Godamiturri 7 1º • 01440 - IZARRA • Teléfono: 945 43 70 80 • Fax: 945 43 72 88

# DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRIAK, 2024 URTEAN HERRIETAKO JAIAK OSPATZEKO

***DEIALDIAREN OINARRIAK***

**1.- DEIALDIAREN XEDEA**

Aurrekontu-mugen barruan, Urkabustaizko herriko jaiak edota erromeriak egiteko dirulaguntzak ematea.

**2.- ENTITATE ONURADUNAK**

Urkabustaizko udalerrian legez eratuta eta erregistratuta dauden toki-erakunde txikiek jaso ahal izango dituzte dirulaguntza hauek.

**3.- DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN PROGRAMAK**

Urkabustaiz Udalerriko herrietako jaiak edo erromeriak sustatzea.

Kultura- eta kirol-jarduerak, aisialdikoak eta elkartasun-, tolerantzia- eta genero-berdintasunaren balioak sustatzen dituztenak.

Ez dira diruz lagunduko luntx, afari edo antzekoei dagozkien gastuak.

**4.- AURREKONTU-KREDITUA**

Ekitaldi bakoitzerako egiten den udal aurrekontu orokorrean aurrekontu partidak egingo dira urtero, oinarri hauetan jasotzen diren dirulaguntzen banaketa partida horien kontura egiteko.

**5.- DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO IRIZPIDEAK ETA ZENBATEKOA**

Dirulaguntza zehazteko eta dirulaguntzaren zenbatekoa finkatzeko balorazio-irizpidea honako hau izango da:

Zenbatekoa egindako eskaeren, erakunde eskatzaileko biztanle-kopuruaren eta aurrekontu-partidaren zuzkiduraren arabera aztertuko da.

1.- Aurrekontua dirulaguntza eskatzen duten batzordeen artean banatuko da, formula hau erabiliz:

X= Aurrekontu-partidaren zenbatekoa (AP) x Eskatzailea haztatzeko faktorea (HF) zati Eskatzaileak haztatzeko faktore guztien batura (HG)

$$X = \frac{AP \times HF}{HG}$$

| Biztanle kop. | Ponderazioa |
|---|---|
| 1 - 500 | 0,25 |
| 501 - 1.000 | 0,50 |
| 1.001- 1.500 | 0,75 |
| 1.501- 2.000 | 1 |

Emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste erakunde batzuen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, ezin izango da izan elkarte edo erakunde onuradunak garatu beharreko jardueraren kostua baino handiagoa.

Onartutako dirulaguntza berrikusi ahal izango da, gastua beste erakunde batzuen laguntzen ekarpen osagarrien bidez nola finantzatzen den jakin ondoren, bai eta, hala badagokio, beste diru-

sarrera batzuen bidez ere, behin betiko zenbatekoa gastuen eta sarreren azken likidazioaren emaitza defizitarioa izan dadin.

**6.- EPEA: ESKAERA ETA MEMORIA**

1.- Eskabideak eta justifikazioak aurkezteko epea, zazpigarren oinarrian aipatzen den dokumentazioarekin batera, hamabost egun baliodunekoa izango da, deialdiaren laburpena ALHAOn argitaratzen denetik kontatzen hasita. Epez kanpo aurkeztutako eskaerak ez dira kontuan hartuko.

Udalaren sarrera-erregistroan aurkeztuko da, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

2.- Dirulaguntza hauek jasotzeko dokumentazioa aurkezteak berekin dakar oinarri hauetan ezarritakoa berariaz eta formalki onartzea.

3.- Ezin izango dute dirulaguntzarik eskuratu Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan aipatzen diren arau-hausteengatik zehatuak izan direnek.

**7.- DOKUMENTAZIOA**

Diru-laguntza jasotzeko, erakundeek, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

1. Eskaera ofiziala, behar bezala beteta eta sinatuta.
2. Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerek eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak: froga balioa daukaten fakturak edo kontabilitate agiriak (jatorrizkoak edo fotokopia konpultsatuak).

Gastuak justifikatzeko ez dira onartuko datu hauek argi eta garbi azaltzen ez diren ordainagiriak, fakturak, tiketak…:

- Emailea: izena edo sozietatearen izena, eta NAN edo IFZ
- Hartzailea: egoitza eta IFZ (dirulaguntza jaso duen erakundea izan behar da)
- Gastuaren xedea
- Data
- BEZa: aplikatutako zerga tasa(k)

3. Programen aleak, bertan jasota Urkabustaizko Udalaren babesa daukatela.

**8.-ESKAERAK AZTERTZEA ETA ERABAKITZEA**

Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren aztertuko eta, hala badagokio, emango edo ukatuko dira dirulaguntzak.

Izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna: Tokiko Gobernu Batzarra izango da espedientea izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna.

Eskaerak ebaluatu ondoren, kide anitzeko organoari bidaliko zaio espedientea, Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.1 artikuluak oinarri arautzaileak ezarri ditu, eta eskaerei buruzko txostena egingo du.

Espedientea eta kide anitzeko organoaren txostena ikusita, instrukzio-organoak behin-behineko ebazpen-proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta, eta interesdunei jakinaraziko zaie, alegazioak aurkezteko hamar eguneko epean.

Ebazpen-proposamenak honako hauek jaso beharko ditu: dirulaguntza zein eskatzailerentzat ematea proposatzen den, dirulaguntzaren zenbateko espezifikoa, ebaluazioaren zehaztapena eta dirulaguntza emateko irizpideak.

Behin betiko ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoitua, Tokiko Gobernu Batzarrak onartuko du.

Ebazteko epea hiru hilabetekoa izango da, eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik kontatzen hasita, eta epe horren barruan ebazpenik eta jakinarazpenik ematen ez bada, ezetsi egingo dira.

Ebazpenak amaiera emango dio administrazio-bideari, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzien epaitegian, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 9.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, jakinarazten denetik bi hilabeteko epean.

Zuzenean aurkaratzen ez bada, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

**9.- DIRU-LAGUNTZA ORDAINTZEA**

Diru-laguntza epe bakarrean ordainduko da, dirulaguntza-deialdiari dagokion erabakia hartu ondoren.

**10.- BABESLETZA**

Erakunde onuradunek modu argian jarri beharko dute argitaratzen dituzten programa, kartel etab.en aleetan Urkabustaizko Udalaren logoa eta armarria.

**11.-DIRULAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA**

Laguntza hau bateragarria da beste edozein laguntza edo diru-laguntzarekin.

Udal honek emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, bakarrik edo beste administrazio, erakunde edo organismo publiko batek emandako beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin batera, ezin izango da izan onuradunak garatutako jardueraren kostua baino handiagoa.

**12.- INTERPRETAZIOA**

Oinarri hauek interpretatzeko orduan zalantzarik izatekotan, Alkatetzak erabakiko ditu zalantza horiek guztiak, batzorde informatiboaren eta dagokion teknikariaren txostena izan ondoren.

**13.- LEGE OSAGARRIAK**

Oinarri hauetan aurreikusitakorako, kontuan izango dira Urkabustaizeko Udaleko Diru-laguntzak eta Laguntzak arautzen dituen Ordenantza eta Diru-laguntzen Legea eta Araudi Orokorra.

Hala jakinarazten da guztiok jakin dezazuen.

**SINADURA ELEKTRONIKODUN DOKUMENTUA**

Ayuntamiento de **URKABUSTAIZ** (Álava) **URKABUSTAIZKO** Udala (Araba)

C.I.F.: P - 0106200 - I • c/Godamiturri 7 1º • 01440 - IZARRA • Teléfono: 945 43 70 80 • Fax: 945 43 72 88

**HERRIKO JAIAK ANTOLATZEKO DIRULAGUNTZA ESKABIDEA**
SOLICITUD DE SUBVENCION PARA ORGANIZACIÓN DE FIESTAS PATRONALES

| **KONTZEJUA/** CONCEJO | | | | **IFK**/NIF |
|---|---|---|---|---|
| | | | | |
| **ORDEZKARIA (IZENA ETA ABIZENAK) /** REPRESENTANTE (NOMBRE Y APELLIDOS) | | | | **NAN-AIZ-IFK** /DNI-NIE-NIF |
| | | | | |
| **Kalea** / Calle | | **Zk** /Nº | **Solairua** / Piso | **Herria**/ Pueblo |
| | | | | |
| **Posta-Kodea**/ Código Postal | **Udalerria**/ Municipio | | **Lurraldea**/ Provincia | |
| | | | | |
| **Posta elektronikoa**/ Correo electrónico | **Telefono zk.**/ Nº Teléfono | | **Mugikorraren zk.**/ Nº móvil | |
| | | | | |

| **JAKINARAZPENETARAKO DATUAK** - DATOS PARA ENVÍO DE NOTIFICACIONES | |
|---|---|
| **Helbide elektrektronikoa** – Dirección de correo electrónico | |

| **PROGRAMAREN MEMORIA** / MEMORIA DEL PROGRAMA |
|---|
| Jaiaren izena / Denominación oficial de la festividad: |
| Programaren deskribapena, garapen-lekua, denboralizazioa (datak, orduak):<br>Descripción de programa, lugar de desarrollo, temporalización (fechas, horas): |
| Hala badagokio, edukiaren azterketa eta genero-berdintasunaren lorpenaren ebaluazioa:<br>En su caso, análisis del contenido y evaluación de la consecución de la igualdad de género: |
| Hala badagokio, jarduera euskaraz egin delaren deskribapena:<br>En su caso, descripción sobre el desarrollo de la actividad en euskera: |

Ahal bada, parte-hartzaileen kopurua egiaztatzea, sexuaren arabera bereizita:
Si es posible, número de participantes, desagregados por sexo:

**ADIERAZTEN DUT - DECLARO**

☐ Urkabustaizko Udalari baimena ematen diot, eskumena duten administrazioei eska diezazkien zerga-betebeharrei eta gizarte segurantzari buruzko datuak, prozedura honen eskakizunak betetzen ditudala egiaztatzeko helburuarekin bakarrik.

Autorizo al Ayuntamiento de Urkabustaiz a que solicite a las Administraciones competentes los datos de estar al corriente en las obligaciones tributarias y la seguridad social, exclusivamente a efectos de comprobar el cumplimiento de los requisitos del presente procedimiento.

☐ Ez dudala beste erakunde publiko edo pribatu batzuei kontzeptu beragatik dirulaguntzarik eskatu.

Que no he solicitado ninguna otra subvención por el mismo concepto a otras instituciones públicas o privadas.

☐ Kontzeptu horregatik ___________euroko dirulaguntza jaso dudala________________. (Honekin batera diru-laguntza emateari buruzko agiriaren kopia bidaltzen da)

Que he percibido subvención para el mismo concepto por la cantidad de _____________ € de la institución ______________________ (se adjunta copia del documento de concesión de la subvención)

☐ Kontzeptu beragatik dirulaguntza eskatu dudala eta gaurko egunean ez dela ebatzi.

Que he solicitado ayuda por el mismo concepto y que a fecha de hoy no se ha resuelto.

☐ Kontzejuak emandako datu guztiak, aurkeztutako diru-laguntza eskaerarekin batera, egi direla, Kontzeju honetan dugun dokumentazioarekin bat etorriz.

Que los datos aportados por el Concejo junto con la solicitud de subvención presentada son ciertos, de conformidad con la documentación obrante en este Concejo.

**ERANTSITAKO AGIRIAK / DOCUMENTACIÓN APORTADA**

☐ Diruz lagundutako jarduerak edo jarduerek eragindako gastuak frogatzen dituzten agiriak: froga balioa daukaten fakturak edo kontabilitate agiriak.

Justificantes de gastos causados por la realización de la actividad o actividades realizadas: facturas o documentos contables de valor probatorio y equivalente.

☐ Programen aleak, non jasoko den Urkabustaizo Udalaren babesa daukatela.

Ejemplares de programas en los cuales se hará mención del patrocinio del Ayuntamiento de Urkabustaiz.

☐ Justifikazio-kontua _ kalkulu-orria / Cuenta justificativa _ hoja de cálculo

| DATUAK BABESTEKO OINARRIZKO INFORMAZIOA | INFORMACIÓN BÁSICA DE PROTECCIÓN DE DATOS |
|---|---|
| **Tratamenduaren arduraduna** | **Responsable del tratamiento** |
| URKABUSTAIZKO UDALA<br>Godamiturri kalea, 7<br>01440 IZARRA (ARABA)<br>Telefonoa: 945 437080<br>Posta elektronikoa: info@urkabustaiz.eus<br>IFK: P0106200I | AYUNTAMIENTO DE URKABUSTAIZ<br>C/ Godamiturri, 7<br>01440 IZARRA (ARABA)<br>Teléfono 945 437080<br>Correo electrónico: info@urkabustaiz.eus<br>CIF: P0106200I |
| **Tratamenduaren helburuak eta oinarri juridikoa** | **Fines del tratamiento y base jurídica** |

| | |
|---|---|
| Diru-laguntzen kudeaketa<br>Tratamenduaren oinarri juridikoa tratamenduaren arduradunari aplikagarria zaion lege-eginbeharra betetzeko beharra da. | Gestión de subvenciones<br>La base jurídica del tratamiento es la necesidad para el cumplimiento de una obligación legal aplicable al responsable del tratamiento |
| **Hartzaileak** | **Destinatario/as** |
| Datu pertsonalak honako hauei lagako zaizkie:<br>- Udal webgunea<br>- Diru-laguntzen Datu Base Nazionala | Los datos personales serán cedidos a:<br>- Web municipal<br>- Base de Datos Nacional de Subvenciones. |
| **Eskubideak** | **Derechos** |
| Interesdunak bere datuekiko irispide-eskubidea, datuak zuzentzeko, ezabatzeko bai eta horien tratamendua mugatzeko edo tratamenduari aurka egiteko eskubidea du Urkabustaizko udalaren helbidera komunikazio idatzia bidaliz bere nortasuna egiaztatzen dokumentuarekin edo Korporazioaren egoitza elektronikoan horretarako eskuragarri dagoen prozedura elektronikoa hasiz | La persona interesada tiene derecho de acceso, rectificación, supresión de sus datos, y la limitación u oposición a su tratamiento mediante el envío de una comunicación escrita a la dirección del Ayuntamiento de Urkabustaiz incluyendo documento acreditativo de su identidad o iniciando el trámite electrónico disponible al efecto en la sede electrónica de la Entidad Local. |
| **Jatorria** | **Procedencia** |
| Datuak hemendik lortu dira:<br>Interesduna bera edo haren legezko ordezkaria | Los datos han sido obtenidos de:<br>De la propia persona interesada o su representante legal |
| **Informazioa hedatzeko baliabideak** | **Medios para ampliar información** |
| Webgunea: www.urkabustaiz.eus<br>Telefonoa: 945 437080 | Página web: www.urkabustaiz.eus<br>Teléfono: 945 437080 |

| | |
|---|---|
| ……………………….…….………...……<br>….. ……………………………. **jaunak / andreak**<br>………………………………..<br>**erakundearen ordezkaritzan** | ……………………………………………<br>………………. **en representación de la entidad**<br>……………………………………………<br>…………………. |
| **ZIURTATZEN DU** | **CERTIFICA** |

| | |
|---|---|
| 1.- Jasotako dirulaguntzaren xedea bete dela, goian esandakodatuak egiazkoak direla, jarduera egiteko erabili dela dirulaguntza, eta ezarritako epean egin dela jarduera. Gainera, egindako gastuak ordaintzeko betebeharra aitortu da erakundearen kontabilitatean. Gastuak beheko taulan zehazten dira.<br>2.- Aurkeztutako dokumentazioa benetakoa dela eta bat datorrela jatorrizko dokumentazioarekin. | 1.- Que se ha cumplido la finalidad de la subvención percibida, que los datos anteriormente relacionados son ciertos, que los mismos se han destinado al cumplimiento de la actividad realizada y que la misma se ha realizado dentro del plazo de ejecución concedido, acreditando además que el gasto realizado, que se relaciona a continuación, ha sido objeto de reconocimiento de la obligación en la contabilidad de la Entidad.<br>2.- Que la documentación aportada es auténtica y coincide con la documentación original. |

**Beste erakunde edo organismo publiko edo pribatu batek (Urkabustaizko udala eta erakunde onuraduna bera ez denak) emandako beste diru-laguntza edo diru-sarrera batzuk, diruz lagundutako ekintzari edo programari eragiten diotenak.**

Otras subvenciones o ingresos afectados a la actividad o programa subvencionado que hayan sido concedidos por otro ente, organismo, público o privado, distintos del Ayuntamiento de Urkabustaiz y de la propia entidad beneficiaria

| **Entitate diruemailea - Entidad subvencionadora** | **Kopurua - Cantidad** | |
|---|---|---|
| | | |
| | | |
| | | |
| **GUZTIRA** – TOTAL | | |

**Dirulaguntzaren xede den programa antolatzeko edo egiteko egin diren gastuen eta inbertsioen zerrenda sailkatua.**
Relación clasificada de los gastos e inversiones realizados para la organización o celebración del programa objeto de la subvención.

| **Aginduaren zk.(1)**<br><br>Nº de orden (1) | **Fakturaren luzapen data**<br>Fecha de expedición de la factura | **Hartzekodunen sozietatearen izena edo identifikazio izena**<br>Razón social o nombre/s de identificación del acreedor/ acreedora | **Fakturaren zk.**<br>Nº de la factura | **Gaia**<br>Asunto | **Fakturaren zenbatekoa (BEZa barne)**<br>Importe de la factura (IVA incluido) | **Ordainketa data**<br>Fecha de pago |
|---|---|---|---|---|---|---|

C.I.F.: P - 0106200 - I • c/Godamiturri 7 1º • 01440 - IZARRA • Teléfono: 945 43 70 80 • Fax: 945 43 72 88

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | | | | | | |
| 2 | | | | | | |
| 3 | | | | | | |
| 4 | | | | | | |
| 5 | | | | | | |
| 6 | | | | | | |
| 7 | | | | | | |
| 8 | | | | | | |
| 9 | | | | | | |
| 10 | | | | | | |
| 11 | | | | | | |
| 12 | | | | | | |
| 13 | | | | | | |
| Guztira- Total | | | | | | |

| | |
|---|---|
| **(1) Gastuak faktura egin den hurrenkera kronologikoaren arabera antolatuko dira. Ulermena erraztuz gero, gastuak arloka taldekatu ahal izango dira, eta arlo bakoitzean ordena kronologikoari jarraituko zaio.**<br>**Justifikazio-kontuari eransten zaion fakturaren artxibo elektronikoak "Faktura -agindu zenbakia-" izena izan beharko du (adibidez: 1. faktura, 2. faktura, 3. faktura eta abar). Banku-transferentziaren edo ordainketaren egiaztagiriei "Ordainketa -agindu-zenbakia-" deituko zaie (adibidez: 1. ordainketa, 2. ordainketa, 3. ordainketa...).** | |
| (1) Los gastos se ordenarán por orden cronológico de expedición de factura. En caso de facilitarse la comprensión, se podrán agrupar gastos por áreas, y en cada área se seguirá el orden cronológico.<br>El archivo electrónico de la factura que se adjunte a la cuenta justificativa deberá denominarse "Factura -nº de orden-" (Ejemplo: Factura 1, Factura 2, Factura 3,). Los justificantes de transferencia bancaria o pago se denominarán "Pago -nº de orden-" (Ejemplo: Pago 1, Pago 2, Pago 3, … ) | |

**Sinadura eta zigilua/ Firma y Sello**